

LAURGAINEN KONTESA

Lierni Varela Egiguren, 13 urte

Azpeitia

Zenbat liburu ez ote zuen irakurri? Eta misterio eta izuikarazkoak ziren gehien maite zituenak. Txikitatik atsegin zituen sorgin, mamu eta gaztelu bakartien istorioak. Eta bidaia oso luzea izan da behin gazteagotan berarekin ikasitako lagun batek “Laurgaineko kontesa”-ren istorioa kontatu zionetik. Hamar urte pasa dira. Hamaika datu eta istorio bildu ditu, eta orain inoiz baino presoago sentitzen da. Istorioak harrapatu du, eta gaur gauean egiaztatuko ditu orain arte entzun eta irakurritakoak.

Inoiz une hori helduko zenik pentsatu ez bazuen ere, Laurgaineko etxe zaharraren aurrean aurkitzen da. Barrura sartu da. Gaua. Iluna, oso ilun. Goizeko ordu biak zilarrezko horma erlojuan. Hotza. Bakarrik. “Isilegi dago” pentsatu du berekiko. Bat-batean hanka hotsak korridorean. Ateraino heldu dira. Beldur latza jabetu zaio Alexi. Giltza hotsa sarrailan eta hanka pausoak urrentzen, atzetik joateko gonbidatuko balute bezala. Alexek poltsikoan daraman eskuargia piztu du. Argi mantxan hiruzpalau koadro bistaratu dira. Kondesaren

familiakoen erretratuak. Guztiek bere plakatxoak daramate. Halere kondesa bakarrik ezagutu ahal izan du. Gazteena da.

Koadro zerrendaren amaieran ate batekin egin du topo. Izugarria, dotorea, handia eta misterio-tsua. Iluna trinkotuz doa eta Alexek eskuargia aurrera zuzendu du gela argiztatzeko. Bere aurrean mahai txiki bat ikusi ahal izan du. Hara hurbilduz zuri-beltzean argazki bat topatu du. Kondesa da, aurpegi zurbil eta jantzi ilun batekin. Lepoa pitxi dotorez apaindua eta azkazal luzeak ere kolore ilun batez margotuak ditu. Kondesaren begirada zuzenak Alexi hotzikara eman dio.

“Agian kondesaren logela izango zen” pasa zaio burutik. Handia eta bakartia. Hainbat aulki ere ikusi ditu, belusatuak, gorri kolorekoak hanka dotoreekin... Ezkerretara egurrezko estalki bat aurkitu du. Haustuta dago. Alex gerturatu eta hatza pasatu dio. Egurrean tailaturiko lore batzuen marrazkiak eta urrezko irudiak agertu dira. Estalki gainean kaxa bat erdi irekita, eta bertan harrizko pitxiak daude.

“Argazkikoak hain zuzen” –konturatu da Alex.

Logela osoko lurra alfonbra batek estaltzen du eta gelaren beste aldean ohe handi eta hotz bat dago. Ohea estaltzen duten izara zuriak ertirekita dagoen leihotik sartzen den haize apurraz mugitzen dira dantza misterioitsu baten aireaz. Ohe ondoko mahaitxoaren gainean giza itxurako estatua txiki bat dago bi eskuak zabalik dituela, batek kandela bati eusten diolarik. Ohearen atzeko alde-

an logelaren ahoa dirudien leiho handia ikusi du gortina gorri batez estalirik. Eskuin aldera bionboa, gerrako marrazkiz apaindurik. Alexi zentzugabea iruditu zaio, baina aldi berean harrigarria. Pareta gorria da, eta erdian koadro handi-handi bat. Hemen ere kondesa ageri da irribarre maltzur bat Alexi oparituz. Alexi izugarri polita iruditu zaio. Koloretan egina egoteak kondesaren edertasuna oraindik ere areagotu egiten du. Soineko berde batez, bere ile beltza motots batetan jasoa agertzen da. Landa argazkia, kondesa zoriontsua zen garaikoa ziurrenik. Burua logelaren beste aldera biratu duenean Alexek tapiz erraldoi bat bereiztu du.

Bat-batean haize ufada batek gortinak aztoratu ditu eta Alexek kanpoan dagoen ilargi betea ikusi ahal izan du zero beltzaren erdian. Ustekabean haizearekin batera, ordea, halako irudi baporesua ikusi du. Elurraren zuritasuna du. Belusezko soineko gorri luzea. Ile adats beltza. Kondesa! Alex arnasarik gabe gelditu da. Begiak kliskatu ditu, baina kondesaren barre gaiztoak hantxe jarraitzen du. Argi lurrin batez inguraturik. Airean dabil.

– Nork eman dizu NIRE etxean sartzeko baime-na? –barre ikaragarriak egiten ditu kondesak.

Alex arnasarik gabe gelditu da. “Ametsetan ote nago?” galdetzen dio bere buruari. Edo agian entzundakoa eta liburuetan irakurritakoa egia da. Begiak kliskatzen ditu eta ez, kondesaren barre gaiztoak hantxe jarraitzen du. “Ez al dago ordea kondesa duela asko hilda?” Ez du ezer ulertzen.

Kondesaren izpiritua da. “Hegan bai, baina hegorik ez, gorputza bai, baina bizirik ez”. Bizi zen garaian Agata kondesa magia beltzean iaioa zen. Esamesak ugariak ziren eta garaiko jendearen ustez deabrusa zen. Alexek kondesaren istorioak liburuetatik soilik ezagutzen zituen. Baina liburuak liburuak dira.

Estalkiaren aurreko eserlekuan eseri eta mugimendu azkar batez burua biratu du Alexengana. Izuikarak bultzatuta gaztea ate aldera abiatu da korrika, baina haizeak bultzatuta bezala itxi da danbateko batean. Alex nigar egiteko zorian da, eta zerbait esan nahiko lioke baina hitz erdirik ere ez zaio ateratzen, bere ahots kordak moztuta baileuden. Kondesa pareta gorriaren beiratezko leihoaren koskan eseri da. Eta kantuan hasi da doinu triste batez.

*gau argitsuan
zilarrezko ilargiaren azpian
ile beltzeko dama
putzu sakonera erori da.*

*Barrea isildu,
nigarra garrasi
eta piztia beldurgarri bat
ernetuko da.*

*Zilarrezko gauean
kondesak bere esnezko azala,
gau zilartsuan
odolez jantziko du
betiererako*

*Itsasoak hitz egin du
haizea isildu da
eta izar guztiak dira itzali*

...

*Zauri bat dut bihotzean
bihotzean zauri bat dut
bihotzean dut zauri bat...*

Alexi leloa ezaguna egin zaio. Kondesaren abestia da. Ahots leunaz eta kantuaeren doinu altuek hitz magikoen itxura berezia ematen diote kantuari. Alexi abestia burmuinetan iltzatu zaio lehenik ere sarritan entzun izan balu bezala. Gauak aurrea egin du eta Alex nekatuta sentitzen da. Nigar batean belaunak tolestu eta kokoriko eseri da. Zeruan iada ez da izarrik ikusten.

Bat-batean zarrasta mingarri bat sentitu du bi besoetan, jasangaitza, ganibet moduko gailu zorrotz batez eginak. Bi errekatxo gorritzat jaio dira eskumuturretan. Zauritik borborka irtendako odola berehala putzu bihurtu da. Alexek odoljarioa eten nahi du, baina beranduegi da burua moteltzen hasi baitzaio. Bere biziko oihua egiten saiatu da, baina hitz bat bera ere ezin du ahoskatu. Alexek konortea galdu baino lehenagoko azken irudia kondesarena izan da, begi niniak modu bel-durgarrian odoletan itsatsirik.

Kondesak logelako leihoa ireki du eta hegan Laurgain inguruko basoan ezkutatu da, kondesaren hainbat misterio gordetzen dituen basora.